

NAFARROAN NEGOZIATUTAKO KIMIKA HITZARMEN BATEN ALDE!

Duela hilabete batzuk ELAk kanpaina bat hasi zuen Hego Euskal Herrian Kimikako 4 Hitzarmen Probintzial exijitzeko: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa. Kimikaren Estatuko Hitzarmenaren edukia eskasa da, eta ez dator bat Nafarroako errealitate sozioekonomikoarekin; hemen lan egiten dutenen lan-baldintzak hobetzea da kanpaina horren helburua. Horretarako, **bagenekien ezinbestekoa zela esparru horietan negoziazioaren alde egingo zuen gehiengo sindikal bat izatea** eta herrialde bakotzeko patronalek benetako negoziatzeko borondatea izatea.

Irailaren 13an, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek jakinarazi zieten Confebask, SEA (Araba), Cebek (Bizkaia), Bizkaiko Enpresa Kimikoen Elkartea eta ADEGI (Gipuzkoa) patronalei beraiekin batera biltzeko asmoa zutela, EAE mailan sektoreko negoziazioari ekiteko.

Nafarroan gauza bera egiten saiatu gara. Horretarako, **sindikatuen arteko bilera batera deitu genituen LAB, CCOO eta UGT, sindikatutik egiten ari garen kanpaina azaltzeko** eta Nafarroako patronalari Nafarroan sektoreko hitzarmen propio bat negoziatzen hasteko aukera baloratzeko. Hala ere, **LABek baino ez zion baiezko erantzuna eman bilera-proposamenari; CCOOk eta UGTk ez digute erantzun, besterik gabe.** Hala ere, beren jarrera publikoki plazaratu dute, estatalizazioaren alde eginez.

Guretzat, CCOOen eta UGTren jarrera tamalgarria eta inkoherentea da. **Zergatik daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan prest biltzera eta patronalei hitzarmen probintzialen negoziazioa eskatzera, eta Nafarroan ez?** Esan bezala, sektorean negoziazio probintzialak egitearen helburua Nafarroan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzak hobetzea da, Estatu Hitzarmenarekin ez baitira nahikoak; gainera, **Madrilen negoziatzen den Hitzarmen batek ez du Nafarroako errealitatea jasotzen. CCOOk eta UGTk zergatik baztertzen dute aukera hori?** Metalaren sektorean, adibidez, zergatik sina dezakete Nafarroako hitzarmen bat, eta kimiketan, berriz, ez?

CCOOen eta UGTren jarrera horrek enpresei mesede egiten die, oso erosoa baitaude Estatuko Hitzarmenarekin eta horren eduki urriarekin. ELAk Nafarroan sektorearen baldintzak hobetzeko borrokan jarraituko du, beti egin dugun bezala.

HEMEN LAN EGIN, HEMEN NEGOZIATU!

»»» **Aktibatu Lortu Zaindu**

¡POR UN CONVENIO DE QUÍMICAS NEGOCIADO EN NAFARROA!

Hace unos meses **ELA inició una campaña para exigir 4 Convenios Provinciales de Químicas en Hego Euskal Herria**: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa. El Convenio Estatal de Químicas es escaso en su contenido y no responde a la realidad socioeconómica de Nafarroa; mejorar las condiciones laborales de la gente que trabaja aquí es el objetivo de dicha campaña. Para ello, **sabíamos que era imprescindible contar con una mayoría sindical que apostara por la negociación en esos ámbitos y que las Patronales de cada herrialde tuviesen voluntad negociadora real**.

El 13 de septiembre se hizo público por parte de ELA, LAB, CCOO y UGT la intención de solicitar conjuntamente a las Patronales Confebask, SEA (Araba), Cebek (Bizkaia), Asociación Vizcaína de Empresas Químicas y ADEGI (Gipuzkoa) que se reunieran para iniciar la negociación para negeociar en el ámbito de la CAPV.

En Nafarroa hemos intentado hacer lo mismo. Para ello, **hemos llamado a LAB, CCOO y UGT a una reunión intersindical para explicar la campaña que estamos llevando a cabo** desde el sindicato y también para valorar la opción de solicitar conjuntamente a la Patronal navarra que se inicie la negociación de un Convenio propio del sector en Nafarroa. Sin embargo, **solo ha contestado afirmativamente a la propuesta de reunión LAB; CCOO y UGT simplemente no nos han respondido**. Sin embargo, sí que han hecho pública su postura, apostando por la estatalización.

Para nosotrxs esta actitud de CCOO y UGT es lamentable e incoherente. **¿Por qué en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa están dipuestxs a reunirse y a solicitar la negociación de convenios provinciales y en Nafarroa no?** Como decimos, el objetivo de realizar negociaciones provinciales en el sector es mejorar las condiciones laborales de las personas que trabajan en Nafarroa, que con el Convenio Estatal son insuficientes; además, **un Convenio que se negocia en Madrid no recoge la realidad de Nafarroa. ¿Por qué CCOO y UGT rechazan esta oportunidad?** ¿Por qué en el Sector del Metal, por ejemplo, sí que pueden firmar un Convenio de Nafarroa y en Químicas no?

Esta actitud de CCOO y UGT beneficia a las empresas, que están muy cómodas con el Convenio Estatal y su contenido tan escaso. Desde ELA continuaremos luchando por mejorar las condiciones del Sector en Nafarroa, como siempre hemos hecho.

¡AQUÍ TRABAJAMOS, AQUÍ NEGOCIAMOS!

>>> Aktibatu Lortu Zaindu